

Cortaderia selloana: PANPA-LEZKA

***Cortaderia selloana*: identifikazioa**

Landare belarkara da eta 3,5 m-ko diametroko multzoak edo makoilak osatzen ditu. Hosto luze (3 m-raino), zabal (3 cm-raino) eta zorrotzak ditu. Bere loreak 1 m-ko infloreszentzietan biltzen dira, 4 m-rainoko pedunkuluaren gainean. Uztailetik urrira bitartean loratzen da. Ez ditu lehorte luzeak jasaten. Ale handiek izotzaldiak jasan ditzakete, baina txikiak ez. Hazien bidez ugaltzen dira (landare eme batek urtero milioi bat hazi ekoitz ditzake), baita sustraien bidez ere makoila hausten denean.



***Cortaderia selloana*: jatorria eta kokapena**

Jatorriz Hego Amerikakoa da. Lorezaintzan asko erabiltzen da eta munduko eskualde epel eta ez oso lehorretan hedatu da. Euskadin kantauriar isurialdean asko hedatu da, hor, hiriko eta hiri-inguruko eremu narriatuak kolonizatzen ditu, baita landa- eta baso-eremuak ere.

***Cortaderia selloana*: arriskugarritasuna, eragina eta egoera**

Panpa-lezka landaredi narriatua duten ibaiertzak kolonizatzen dituen landare inbaditzaile eta **oso erasokorra** da. Ugaltzeko gaitasun handia du eta bere espezieko multzoak osatzen ditu. Alergiak sor ditzake. 630/2013 EDan sartuta dago.

***Cortaderia selloana*: kontrol eta kudeaketa metodoak**

Espezie hau **desagerrarazteak ahalegin handiak eskatzen ditu**. Talde profesionalak dira, makineriaren laguntzaz, landare honen kontrolaz arduratu behar direnak. Hau da kontrol-mekanismoa:

- Urteroko plantulen eta plantula gazteen erauzketa sustrai osoa kenduz, eskuz edo tresna arin batekin
- Landare helduak irailean haziak sortu aurretik kendu behar dira, edo infloreszentziak moztu eta poltsa hermetikoetan gorde; makoila helduen kasuan, hondeagailu baten laguntzaz irauli eta sustrai-sistema osoa atera behar da

Lehen tratamenduaren ondoren bertako espezieak berlandatu behar dira. Ondoko urteetan balizko ernaberritzeak suntsitu behar dira.

Landare-hondarrak balorizazio energetikoaz arduratzen den zentro batera eraman behar dira. Kontuz ibili behar da haziak edo bestelako hondarrak ez sakabanatzeko. Material guztia garbitzea oso garrantzitsua da. Langileak ondo babestu behar dira hosto zorrotzetatik eta alergietatik.